47zenbakia

A.B.E.

www.amaraberri.org
abmorlans@teleline.es

2005eko urtarrilaren 26a. asteazkena

Editoriala

Kaixo: gu Alba, Aitor, Oihane,eta Goretti gara. Gaur albisteak, entretenigarriak, 2 zikloetako gauzak eta noski eskolako albistea dugu.

Hotza Euskal Herrian.

Hotza , elurra eta negu giroa iritsi zaigu Euskal Herrira. Atzo goizean Iruinean eta Gazteizen hasi zen elur asko egiten baina Euskal Herriko beste toki batzuetan baita ere , errepidetan arazoak hasi ziren. Meteorologoek bazekiten eguraldi elurtsua egongo zela eta jendea prest zegen eguraldi txarrerako. Nafarroan 200 langile eta 54 makina jarri zituen lanean Nafarroko gobernuak elurra errepideetatik kentzeko.

Arantxi Torrecilla

Erredaktoreak

Aitor ,Oihane ,Goretti eta Alba

aurkibidea

1.- AZALA: Hotza Euskal Herrian
2.- GURE ESKOLA: Izotza eskolan
3.- ALBISTEAK: Atleti – Osasuna
4.- LUMAREN KILIMA: Mudua alderantziz
5.- GU ERE IDAZLE: Niños como yo .
6.- ENTRETENIGARRIAK: Menu .

GURE ESKOLA

Eskolan izotza



Gaur eskolara etorri garenean atzoko elurra ez zegoen eskolako lurrean izotza baizik.
Baina izotzarekin ere jolastu dugu.

ZER NAHIAGO DUZU TELEBISTA ALA PRENTSA?

Amaia:
Biak gustatzen zaizkit.

Darío :
Telebista, hor grabatzen delako.

Alicia:
Telebista, gustatzen zaidalako.

Manuela:
Pretsa, telebista egin ez dudalako

Maria:
Prentsa, ordenagailuare-kin nagoelako.



Andrea:
Telebista, dibertigarria-goa delako.

Onditz:
Telebista, dibertigarria delako.

Sergio:
Biak gustatzen zaizkit

INKESTA

NAZIOARTEA

Hollywoodeko akademiak ez du aukeratu Javier Bardem-eri aktore hoberena izateko.

Baina " Mar adentro" filmari bai, pelikula hoberena eta makilajeari baita.

EUSKADI

.Euskadin eguraldia oso txarra da, elurra asko dago eta.

N-1 eta A-68 errepideak itxita daude elurrarengatik.

Horren ondorioz istripu asko egon dira.

KIROLA

Larunbatean Atletikek Osasunaren aurka jokatu zuen. Osasuna 3-0 irabazten hasi zen.

Atletikeko 1. gola Yestek sartu zuen eta 2.a ere bai.

Ematen zuen Osasunak irabazi behar zuela baina Atletikek golak sartzen segitu zuen 4 gol sartu arte.

Atletikek egoerari buelta eman dio eta 8garren postuan dago orain.

Lumaren kilima

Munduaz alderantziz!!

Igande batean, igandero bezala; ni ,nire anaia eta nire ahizpa izkutatu ginen sofaren atzean. Momentu horretan kilima batzuk sumatzen ditut beti eta nire ahizpari berriz, pisagura sartzen zaio.Orduan entzun genuen:

-Maria, Ane, Mikel ohera!

Eta segituan joan ginen ohera, arrapalada bizian, beldurrez pentsatzen;" Aitak harrapatuz gero a zein nolako bronka". Telesailaren zati bat ikusi nuen eta pilo bat kostatu zitzaidan lo hartzea, baina azkenean lo hartu nuen.

Hiri bat aurkitu nuen. Gose haundia nuen eta txutxe denda batera sartu nintzen pipa batzuk erostera. Nik dirua eman nahi nion baina bera esaten zidan dirua eta pipak niretzat zirela. Azkenean dendatik irten nintzen eta galdetu nion ea non zegoen telefono kabina bat eta eskuinean zegoela esan zidan. Nik eskuin alderantz jo nuen eta gizonak oihukatu zidan:

- Ez dakizu bereizten eskuina eta ezkerraren artean! Hori ezkerra da. Ai ene gaur egungo umeak!

Asko izutu nintzen eta korrika joan nintzen eta ur jausi batean gainetik salto egin nuen eta aurpegi guztia busti zitzaidan eta entzun nuen:

- María, María, MA-RI-A!

Nire ahizpa zen. Esnatu ninduen eta amorru gehien eman zidana izan zen aurpegia urez busti zidala. Hotza sentitu nuen.-Atxu!

Gu ere idazle

NIÑOS COMO YO - CANADA (2. partea)

6- El pasatiempo favorito de Levi es ver la televisión.
7- El padre de Levi es carpintero.
8- La madre de Levi se llama Joamie y trabaja de funcionaria.
9- Levi tiene un hermano de 12 años y se llama Kipanik.
10- Levi, aparte de ese hermano, tiene 2 hermanas que se llaman Naiomi y Jackie y tienen 3 y 6 años.

Maialen

EGURALDIA

.D.

Momentu honetako tenperatura:3º
Atzoko tenperaturarik beroena:11º
Gau honetako tenperaturarik hotzena:-3º
Zerua: Lainotuta
Lurra: Izoztuta
Haize mota: Haizexka
Haizearen norabidea: Iparraldetik
Euri mota: Ez du ari
Jasotako euri kantitatea:6lm^2ko

Momentu honetako presioa:1026 mb

Esaera zaharra: Lehia, elurraren deia

EA EGITEN DUZUN JOKU AU
portadakoak ez du balio

entretenigarriak

menu

First menu

First course: ▬

Second course:f▬

Dessert:c ▬

Second-menu

First course s ▬

Second-course:ch▬

Dessert:s ▬

Jon A.